


Langabeziaren hileko bilakaera, generoaren arabera



Martxoan, Lanbiden erregistratutako langabeen kopuruak gorakada txikia izan du eta **7.003 langabe** zenbatu dira (**3.140 gizon eta 3.863 emakume**):

- Langabezia % 0,5 igo da otsailaren aldean.
- Langabezia % 3,8 igo da aurreko urteko martxoaren aldean.

Martxoan, gizon langabeen kopurua eta emakume langabeena zertxobait igo dira (% 0,3 eta % 0,7, hurrenez hurren).

2021eko martxotik, lehen aldiz igo da langabeen kopurua Donostian, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta.

2023ko martxoarekin alderatuta, langabeen kopurua % 3,8 igo da. Gizon zein emakume langabeek gora egin duten arren, langabeziaren hazkunde hori batez ere gizonen taldean kontzentratzen da (+%6,3 gizonetan eta +%1,9 emakumeetan).

Langabezia tasa EUSTAT-en arabera (2024ko 1. hiruhilekoa)

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea kontuan hartu beharrean (7,8 martxoan), EUSTATek hiru hilean behin argitaratutako langabezia-tasa hartzen badugu erreferentziatzat (Biztanleria aktiboaren jardueraren arabera estatistika), berriz ere ikusten dugu Gipuzkoa eta Donostia direla 2023ko azken hiruhilekoa, langabezia-tasarik txikiena izan duten lurralde historikoak eta hiriburuak.

LANGABEZIA TASA (EUSTAT): 2024ko lehen hiruhilekoko datuak.

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	5,7	6,8	6,3
Donostia	6,1	8,0	7,0
Bizkaia	8,8	9,3	9,1
Bilbo	9,7	12,0	10,8
Araba	8,1	7,3	7,8
Gasteiz	9,6	6,9	8,4
EAE	7,7	8,2	7,9

Lanbide-ren bulegoetan izena emanda dauden eta enplegu-bilaketa aktiboa egiten duten pertsonak hartzen ditu kontuan Lanbideren langabezia indizeak. Neurketa Lanbideko erregistroen arabera egiten da.

Eustatek, ordea, langabetzat hartzen ditu lana aktiboki bilatzen ari diren 16 eta 74 urte bitarteko pertsonak, hau da, azken 4 asteetan lana bilatzeko kudeaketak egin dituztenak (Lanbideren bidez edo beste edonola). Galdeketa baten bitartez egiten da neurketa.

	Donostia	Gipuzkoa	EAE
Langabezia indizea	7,8	8,3	10,1
Gizonen langabezia indizea	7,3	7,1	8,6
Emakumeen langabezia indizea	8,3	9,5	11,7
Genero arrakala	1,0	2,4	3,0

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea 7,8koa da: 7,3 gizonetan, 8,3 emakumeetan eta 1,0 puntu portzentualeko genero-arrakala.

	Langabezia indizea	EAErekiko aldea
Gipuzkoa	8,3	-1,8
Donostia	7,8	-2,3
Bizkaia	11,0	0,9
Bilbo	12,9	2,7
Araba	11,0	0,9
Gasteiz	11,4	1,3

Lurraldeen arteko konparaketan, Lanbideko datuen arabera, Gipuzkoa eta Donostia dira EAEn langabezia-indize txikiena duten lurralde historiko eta hiriburuak.

		Hiletik hilerako aldaketa	Urtetik urterako aldaketa
Langabezia totala	7.003	%100	%0,5
Gizonezkoak	3.140	%45	%0,3
Emakumezkoak	3.863	%55	%0,7
Gipuzkoa	29699		%1,8
EAE	111.471		%0,8

JARDUERA-TASA (EUSTAT):

2024ko lehen hiruhilekoko datuak.


	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	60,65	53,9	57,1
Donostia	61,6	53,1	57,0
Bizkaia	60,9	50,7	55,5
Bilbo	63,9	50,3	56,7
Araba	64,3	51,7	57,8
Gasteiz	64,3	50,9	57,3
EAE	61,3	51,9	56,4

OKUPAZIO-TASA (EUSTAT):

2024ko lehen hiruhilekoko datuak.

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	57,0	50,2	53,5
Donostia	57,8	48,8	53,0
Bizkaia	55,5	45,9	50,5
Bilbo	57,7	44,2	50,5
Araba	59,0	47,9	53,3
Gasteiz	58,1	47,4	47,4
EAE	56,6	47,6	51,9

Langabeziaren banaketa, adinaren eta generoaren arabera



Donostian, otsailean:

- 55 urtetik gorako 2.462 langabe erregistratu dira Lanbiden (+39, otsailarekin alderatuta).
- 45 eta 54 urte bitarteko 1.642 langabe erregistratu dira Lanbiden (-12, otsailarekin alderatuta).
- 35-44 urte bitarteko 1.267 langabe erregistratu dira Lanbiden (-23, otsailarekin alderatuta).
- 25 eta 34 urte bitarteko 1.123 langabetu erregistratu dira Lanbiden (+50, otsailarekin alderatuta).
- 25 urtetik beherako 510 langabe erregistratu dira Lanbiden (-16 otsailarekin alderatuta).

Langabeen kopuruak zertxobait gora egin du 55 urtetik gorakoen eta 25-35 urte bitartekoen artean. Gainerako adin-tarteetan, zertxobait jaitsi da langabeen kopurua.

Egia bada ere 55 urtetik gorakoak direla langabezian pisu handiena duten kolektiboak, horiek ere garrantzi handiagoa dute biztanleria-mailan.

Otsailarekin alderatuta, gizon langabeen eta emakume langabeen kopuruak gora egin du.

2023ko martxoarekin alderatuta, gizon eta emakume langabeen kopuruak gora egin duen arren, hazkunde hori batez ere gizonen kolektiboan kontzentratzen da (emakume langabeen kopurua % 1,9 hazi da eta gizonena % 6,3).

Martxoan, bai EAEn, bai Gipuzkoan, langabeen kopuruak gora egin du. Gainera, Donostiakoa baino proportzio handixeagoan egin dute (Gipuzkoa + % 1,8 eta EAE + % 0,8).

2023ko martxoarekin alderatuta, Donostiako langabeen hazkundera (+%3,8) EAEkoa (+%2,1) baino zertxobait handiagoa eta Gipuzkoakoa (+%4,5) baino txikiagoa izan da.

	Gizonak	Emakumeak	Arrakala
25 urtetik beherakoak	%55,1	%44,9	-10,1
25 eta 34 urte bitartekoak	%47,7	%52,3	4,5
35 eta 44 urte bitartekoak	%42,2	%57,8	15,6
45 eta 54 urte bitartekoak	%45,4	%54,6	9,2
55 urtetik gorakoak	%42,4	%57,6	15,3

Emakume langabeen kopurua gizonena baino handiagoa da adin-tarte guztietan, 25 urtetik beherakoetan izan ezik.


Genero-berdintasunean aurrerapenak izan diren arren, datuek pentsarazten digute oraindik ere oztopoak eta aurreiritziak daudela, emakumeek enplegua lortzea eta karrera profesionalean aurrera egitea oztopatzen dutenak.

Hori are nabarmenagoa da pertsonen beste familia-erantzukizun batzuei aurre egiten dieten adin-tarteetan, hala nola seme-alabak edo beste senitarteko batzuk zaintzean.

Testuinguru horretan, datuek pentsarazten digute 35 urtetik gorako emakumeen artean langabeziaren kronifikazioa dagoela.

Kronifikazio horrek 35 eta 45 urte bitarteko emakumei eta 55 urtetik gorako emakumei eragiten die batez ere, denbora luzean generoen arteko aldea 15 ehuneko-puntutik gorakoa baita (martxoan 15,6 eta otsailean 19)..

Langabeek lortutako gehieneko hezkuntza maila



Langabeen % 46,5ek derrigorrezko ikasketak ditu bakarrik. Hala eta guztiz ere, langabeen % 17,9k unibertsitate-ikasketak ditu (Gipuzkoan eta EAEn baino ehuneko 7 puntu gehiago, gutxi gorabehera).

Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, Donostiako langabetuak kualifikazio handiagoa du (gehiago dira unibertsitate-ikasketak dituzten langabeak, eta gutxiago, soilik, derrigorrezko ikasketak dituztenak).

Bestalde, goi-mailako ikasketak (Lanbide Heziketa eta unibertsitatea) dituzten emakume langabeen ehunekoa gizonena baino handiagoa da, eta esan dezakegu **Donostiako langabeen artean, oro har, emakumeek gizonen baino kualifikazio handiagoa dutela**. Aurrerago aztertuko dugun bezala, horrek pentsarazten digu genero-desberdintasunak daudela, emakumeen kolektiboarentzat kaltegarriak, lan-merkatutako sarbidean eta kalitatezko enpleguetan.


	Donostia	Gipuzkoa	EAE
45 urtetik gorakoak	%58,4	%54,1	%54,3
35 urtetik beherakoak	%23,8	%25,8	%25,3
Iraupen luzeko langabezia	%44,4	%44,8	%48,8
Atzerritarrak	%15,6	%20,1	%18,6
EB-ko atzerritarrak / Atzerritarrak	%17,4	%16,8	%15,7
Unibertsitateko ikasketak dituztenak	%17,9	%11,6	%11,5
DBHra arteko ikasketak dituztenak	%45,6	%53,8	%55,8

Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, honako hau nabarmendu behar da:

- *Proportzioan, Donostiak 45 urtetik gorako langabetu gehiago ditu.*
- *Proportzioan, Donostiak gazteen langabezia txikiagoa du.*
- *Proportzioan, Donostiak EAEk baino iraupen luzeko langabe gutxiago ditu.*
- *Proportzioan, Donostiak EAEk eta Gipuzkoak baino atzerritar jatorriko langabe gutxiago ditu.*
- *Donostian, EBtik datozen atzerritar langabeen proportzioa, atzerritar langabeen guztizkoari dagokionez (%17,4), handiagoa da Gipuzkoan (% 16,8) eta EAEn (% 15,7) erregistratutakoa baino.*




(20 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren garrantzi demografiko bera biztanleria osoarekiko 3 lurraldeetan: % 58.)

Langabeek gehien eskatzen dituzten lanbideak



Langabeek gehien eskatzen dituzten okupazioen artean, enplegu-eskatzaileek Lanbideren bidez interesa agertu dutenak, zerbitzuen sektoreko okupazio kualifikatuak eta kualifikaziorik gabeko okupazioak nabarmentzen dira.

Sinatutako kontratuak eta kontratatutako pertsonak



Martxoan **emakumezkoen kontratazioa gizonazkoena baino handiagoa** izan da. Gainera, **emakume langabeen hazkundera gizon langabeena baino txikiagoa** izan da.

Hala eta guztiz ere, datuek bide ematen digute pentsatzeko kontratazio motan eragina duten genero-oztopoak eta -aurreiritziak daudela oraindik. **Martxoan, emakumeek sinatutako kontratuen ia erdia lanaldi partzialekoak dira, eta gizonak sinatutako kontratuen % 31 baino ez dira mota horretako kontratuak.** Desberdintasun horiek egiturazko desberdintasunak ez ezik, emakumeen aukera profesionalak mugatzen dituzten estereotipo errotuak ere islatzen dituzte.

Era berean, nabarmentzekoa da **emakumeek**, Donostian sinatutako kontratu guztien artean, **aldi baterako kontratuen % 56,2 eta lanaldi partzialeko kontratuen % 66** sinatzen dituztela martxoan

Azkenik, **emakume atzeritarren garrantziak gora egin du kontratazioan**. Martxoan, kontratatutako pertsona guztietatik, % 12,3 emakume atzeritarrak ziren (atzeritarrak Donostiako biztanleria osoaren % 10,2 dira).

Martxoan 7.666 kontratu sinatu dira Donostian, hau da, otsailean baino %11,14 gutxiago (otsailean baino 854 kontratu gutxiago; 2023ko martxoan baino 1.337 kontratu gutxiago.).

	Gizonak		Emakumeak		Guztira
Hileko kontratuak guztira	3.125	%44,6	3.885	%55,4	7.010
Aldi baterakoak	2.229	%43,8	2.857	%56,2	5.086
Mugagabeak	896	%46,6	1.028	%53,4	1.924
Lanaldi partziala	982	%33,9	1.911	%66,1	2.893
Lanaldi osoa	2.143	%52,1	1.974	%47,9	4.117

Kontratu horiekin 5.377 pertsona kontratatu dira, hau da, %9,2ko jaitsiera izan da urtarilaren aldean (494 pertsona gutxiago kontratatu dira).

Batez beste, kontratatutako pertsona horietako bakoitzak 1,4 kontratu sinatu ditu.


Nabarmentzekoa da, martxoan kontratu gutxiago sinatu diren arren, kontratazio mugagabea % 4 hazi dela otsailaren aldean. Beraz, kontratazio osoa % 8,6 jaitsi bada ere, langabeen kopurua % 0,5 bakarrik hazi da.

	Gizonak		Emakumeak		Guztira
Kontratatutako pertsonak guztira	2.273	%44,1	2.881	%55,9	5.154
Sinatutako kontratuen ratioa	1,4		1,3		1,4
24 urtetik beherakoak	549	%44,7	679	%55,3	1.228
25 eta 34 urte bitartekoak	659	%45,8	779	%54,2	1.438
35 eta 44 urte bitartekoak	469	%44,2	593	%55,8	1.062
45 eta 54 urte bitartekoak	424	%43,4	553	%56,6	977
54 urtetik gorakoak	172	%38,3	277	%61,7	449
Atzeritarrak	529	%45,4	636	%54,6	1.165

Nabarmendu dezakegu:

- Adin-tarte guztietan gizonak baino emakume gehiago kontratatu dira. Batez ere 45 urtetik gorakoan adin-tartean.
- Kontratazio mugagabearen garrantzia gutxi gorabehera 0,5 ehuneko-puntu igo da (kontratu guztien % 27,4; % 27,1 otsailean, % 23,8 urtarilean eta % 20 abenduan).
- Partzialtasuna zertxobait jaitsi da, baina aurreko hilabeteetako mailen antzekoa da; martxoan sinatutako kontratuen % 42,4 lanaldi partzialekoak baitira. Kontratu mota hau emakumeek sinatzen dituzte batez ere (kontratu horien % 67).
- Kontratuen % 51 35 urtetik beherakoek sinatzen dituzte.
- Kontratuen % 29 45 urtetik gorako pertsonak sinatzen dituzte. Horien guztien % 58 emakumeak dira.
- Martxoan kontratatutako pertsonen % 20 atzeritarrak ziren (% 20 otsailean). Gainera, kontratatutako atzeritar jatorriko pertsonen % 55 emakumeak ziren.

Kontratuak sektore nagusien arabera¹



OSTALARITZA

- Sektore honetan sinatutako kontratuen zenbatekoa eta hiriko guztizko kontratazioan duten pisuak gora egin dute. **Hiriko kontratu guztien % 18,1 sinatu ditu** (otsailean % 15,8; 2023ko maiatzean % 24).
- Hiriko kontratu mugagabe guztien % 30,1 sinatu ditu** (% 26,2k otsailean)
- Sektore honetan sinatu dira kontratu mugagabe gehien, 579 kontratu mugagabe** (484 kontratu otsailean).
- Kontratazio mugagabeak berriro ere gora egin du sektorean**, aurreko hileko dinamika positiboari jarraipena emanez. Izan ere, joan den urtearen erdialdetik sektoreak aldi baterako kontratazioarako zuen joera negatiboarekin hautsi zen otsailean. **Ostalaritzan sinatutako kontratuen % 46 mugagabeak dira** (% 45 otsailean eta % 34 urtarrean).
- Uheneko 4 puntu jaitsi da kontratazioaren partzialtasuna** otsailarekin alderatuta. Ostalaritzan sinatutako kontratuen % 55 lanaldi partzialekoak dira.

MERKATARITZA

- Hiriko kontratuen % 10,2 sinatu ditu** (% 12,2 abenduan, % 11,3 urtarrean eta % 10,4 otsailean).
- Hiriko kontratu mugagabeen % 14,7** (% 13,2 otsailean), **eta lanaldi partzialeko kontratuen % 13,3** (% 13,5 otsailean) **sinatu ditu**.
- Martxoan sinatutako kontratuen % 40 mugagabeak dira** (% 28 urtarrean eta % 34 otsailean). Ostalaritzan bezala, aurreko hilabeteko tendentzia aldaketa positiboari jarraipena eman zaio.
- Lanaldi partzialeko kontratazioa ez da asko aldatu**. Erregistratutako kontratuen % 55 lanaldi partzialekoak dira (% 60 urtarrean eta % 54 otsailean).

KONTRATU MUGAGABEAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	11 (%0,6)	%100,0	%0,0
Eraikuntza	82 (%4,3)	%92,7	%7,3
Industria	34 (%1,8)	%76,5	%23,5
ostalaritza	579 (%30,1)	%52,3	%47,7
Merkataritza	283 (%14,7)	%37,5	%62,5
SEIC - PERTSONAK			
Hezkuntza	61 (%3,2)	%29,5	%70,5
Osasuna eta gizarte zerb.	149 (%7,7)	%24,8	%75,2
SEIC - ENPRESAK			
Zerbitzu operatiboak	247 (%12,8)	%53,0	%47,0
	478 (%24,8)	%39,3	%60,7

JARDUNALDI PARTZIALEKO KONTRATUAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	0 (%0,0)	-	-
Eraikuntza	7 (%0,2)	%71,4	%28,6
Industria	41 (%1,4)	%70,7	%29,3
ostalaritza	702 (%24,3)	%39,7	%60,3
Merkataritza	390 (%13,5)	%27,7	%72,3
SEIC - PERTSONAK			
Hezkuntza	266 (%9,2)	%25,6	%74,4
Osasuna eta gizarte zerb.	546 (%18,9)	%16,1	%83,9
SEIC - ENPRESAK			
Zerbitzu operatiboak	220 (%7,6)	%50,5	%49,5
	721 (%24,9)	%40,8	%59,2

behin-behinekotasunak oso handia izaten jarraitzen duela hirian; Donostian sinatzen diren 10 kontratutik 2,7 baino ez dira mugagabeak (aurreko hilabeteetako maila berdina).

Behin-behinekotasuna jarduera-sektore hauetan nabarmentzen da batez ere: industrian eta osasun – gizarte zerbitzuen sektorean (sektore horietan sinatutako kontratuen % 89 eta % 88 aldi baterakoak dira, hurrenez hurren).

Lanaldiaren partzialtasuna bereziki garrantzitsua da ostalaritzan, merkataritzan, hezkuntzan eta osasun sektorean. Azken horretan, lanaldi partzialeko kontratuen % 74 emakumeei egiten zaizkie (oso sektore feminizatua da).

Emakumeek ez dute ia presentziarik lehen sektoreak eskaintutako kontratazioan (% 0), industrian (% 27) eta eraikuntzan (% 8). Hala ere, hezkuntzako kontratuen % 75 eta osasun-sektoreko kontratuen % 76 emakumeen kolektiboarentzat dira.

¹**SEIC:** SEIC terminoak "Ezagutzako Zerbitzu Intentsiboak" kontzeptuari egiten dio erreferentzia, balio erantsi handia erakusten duen zerbitzu-tipologia. SEICak, era berean, **pertsonen zuzendutako SEICetan** (hezkuntza eta osasuna) eta **enpresei zuzendutako SEICetan** banatzen dira (ingeniaritzako, ikerketako, aholkularitzako, sormeneko jarduera intentsiboetako eta abarretako jarduerak).


SERVICIOS OPERATIVOS Sektore hauek biltzen ditu: garraioa eta biltegiatzea (652 kontr.), finantza- eta aseguru-jarduerak (16 kontr.), higiezin-jarduerak (12 kontr.), administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak (1.082 kontr.), administrazioa publikoa (89 kontr.), beste zerbitzu batzuk (85 kontr.) eta etxeetako jarduerak (169 kontr.).

DSBEaren hartzaileak (otsaila)

Gaur egun, ez daukagu datu eguneraturik DSBEa jasotzen dutenen kopuruari eta profilari buruz.

Eskuragarri dauden azken datuak urtarilari buruzkoak dira, hilabete horretan **3.609 pertsonak jaso baitzuten DSBEa hirian** (57 hartzaile gehiago abenduan baino).

Martxoko daturik ez dagoenez, orrialde honetan otsaileko datuak agertzen dira, Donostian DSBEa jasotzen dutenen kopuruari eta ezaugarriei buruzko balio orientagarriak izateko.




Nabarmendu daiteke:

- Urtarrilean **DSBEa jaso zutenen % 59,3 emakumeak dira.**
- 55 urtetik gorakoak DSBE jasotzen zutenen % 47,8 ziren** urtarrian.
- Urtarrilean **DSBEa jasotzen zutenen % 18,6k lanaren osagarri gisa** jaso zuten.
- Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenen % 27,5k goi-mailako ikasketak zituen** urtarrian Donostian (Lanbide Heziketa edo unibertsitateak).
- Gipuzkoarekin eta EARekin alderatuta, nabarmentzekoa da Donostiako DSBEa jasotzen duen pertsonak adin eta kualifikazio handiagoa izateko joera duela.

(Otsaileko datuak)

	Donostia	EAE	Gipuzkoa
16 - 19 urte	%0,3	%0,6	%0,3
20 - 24 urte	%2,1	%2,3	%2,5
25 - 29 urte	%4,8	%5,4	%5,4
30 - 34 urte	%6,9	%8,0	%7,6
35 - 39 urte	%8,7	%10,0	%9,7
40 - 44 urte	%8,6	%11,5	%11,0
45 - 49 urte	%10,4	%11,8	%11,1
50 - 54 urte	%10,4	%11,3	%10,8
55 urtetik gora	%47,8	%39,0	%41,6
barrutitik kanpora	-	-	-
Derrigorrezko ikasketak	%54,0	%62,2	%59,8
Batxilergoa	%9,2	%6,7	%6,9
Lanbide Heziketa	%20,6	%17,1	%19,4
Unibertsitatea	%6,8	%4,4	%4,5
Informaziorik gabe	%9,3	%9,5	%9,3
Lanaren osagarritasuna	%18,6	%16,5	%17,9
Oinarrizko DSBE modalitatea	%81,4	%83,5	%82,1
Gizonak	%42,8	%42,7	%42,8
Emakumeak	%59,3	%57,3	%57,2

DSBEaren hartzaileak auzoaren arabera (otsaila)



(Otsaileko datuak)

Auzoak	Hiritar kopurua	DSBEaren hartzaileak	Auzokide guztiekiko %
Aiete	14.066	140	%1,0
Altza	19.517	599	%3,1
Amara Berri	29.377	427	%1,5
Antiguo	13.754	134	%1,0
Añorga	2.448	26	%1,1
Ategorrieta-Ulía	3.874	77	%2,0
Centro	21.352	347	%1,6
Egia	14.208	330	%2,3
Gros	17.563	273	%1,6
Ibaeta	9.721	127	%1,3
Igeldo	1.040	7	%0,7
Intxaurrondo	15.010	535	%3,6
Loiola	6.073	174	%2,9
Martutene	2.592	84	%3,2
Miracruz-Bidebieta	8.565	285	%3,3
Miramón-Zorroaga	2.302	20	%0,9
Zubieta	292	2	%0,7